

Emakumeak

**Ezkutuko
ondarea.**

Emakumeen
errealitateak
Bizkaian

**Patrimonio
oculto.**

Realidades
de las mujeres
en Bizkaia



*Emakumezkoek munduan duten eragina
aldarrikatzea oso loturik dago irakatsi diguten
historia beste era batera irakurtzearekin.*

La reivindicación del papel de las mujeres en el mundo tiene mucho que ver con realizar una relectura de la historia que nos han enseñado.



Ezkutuko
Patrimonio
ondarea.
oculto.

Emakumeen
Realidades de
errealitateak
las mujeres

Bizkaian
en Bizkaia



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bizkaiko Batzar Nagusiak/
Juntas Generales de Bizkaia

Lehendakaria/Presidenta
Ana Otadui Biteri

Lehenengo Lehendakariordea/Vicepresidenta
primera
Begoña Gil Llanos

Bigarren Lehendakariordea/Vicepresidente
segundo
Zigor Isuskiza Arana

Lehenengo Idazkaria/Primer Secretario
Koldo Mediavilla Amarika

Bigarren Idazkaria/Segundo Secretario
Emilio Lobato Pascual

Argitalpena/
Publicación

Edizioa/Edición
Javier Barrio Marro

Egileak/Autores
Ainara Arranz Núñez
Ainara Martínez Matía
Aingeru Berguices Jausoro
Arantxa Pereda Angulo
Jaione Agirre García
Jon Irazabal Agirre
Mariefi Pérez Elexpe

Argazkiak/Fotografías
Miguel Calvo Alejo, “Mitxi”
Bizkaiko Foru Agiritegia/Archivo Foral de Bizkaia
Aingeru Berguices
Edurtzeta Ania
Mariefi Pérez Elexpe

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación
Ouidesign

Itzulpenak/Traducciones
Hitzek. Irene Hurtado Mendieta

Inprimaketa/Impresión
Grafo

L.G.-D.L.: BI-1142-2019
ISBN: 978-84-88088-11-6

8

Sarrera - Introducción

12

Arranz Núñez, Ainara:

Mendietaren eskumuina: Europako artearen emakumeen lehenengo erretratu kolektiboa. Genero ikuspegia.

El Besamanos de Mendieta: primer retrato colectivo de mujeres en el arte europeo. Una visión de género.

22

Martínez Matía, Ainara:

Emakumezkoen lanbideak Bizkaiko historian. Genero hurbilpen bat Gernikako Batzarretxeko irudikapenetatik abiatuta.

Profesiones de mujeres en la historia de Bizkaia. Una aproximación de género a partir de las representaciones en la Casa de Juntas de Gernika.

38

Agirre García, Jaione:

Bizkaiko andreak Jaurerriko buru Erdi Aroan.

Señoras de Bizkaia al mando del Señorío en la Edad Media.

52

Berguices Jausoro, Aingeru:

Euskal pandereterea: patriarkatuaren urradura.

La panderetera vasca: una brecha en el patriarcado.

62

Pérez Elexpe, Mariefi:

Sopuertako emakumeak.

Mujeres de Sopuerta.

72

Irazabal Agirre, Jon:

Sorginen azken hegaldiaren itzalera. Emakume, elizgizon eta legoen istorioak “Durangoko lurretan”.

Sorginen azken hegaldiaren itzalera. Historias de mujeres, clérigos y legos en las “Tierras de Durango”.

84

Pereda Angulo, Arantxa:

Emakume artistak Bizkaiko Batzar Nagusien Bilduman.

Mujeres artistas en la colección de arte de Juntas Generales de Bizkaia.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2017an abiarazi zen Berdintasun Planaren arabera, konpromisoa dute emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren alde, eta konpromisoaren barnean dago berdintasunean aurrera egiteko balio duten jarduerak antolatzea.

Ekintza horien artean daude 2018ko Ondarearen Europar Jardunaldiak zirela-eta erakundearen egoitzetan (Bilbo, Gernika, Abellaneda eta Gerediaga) egin ziren hitzaldiak, bisitaldiak eta jardunaldiak.

Jarduera horien bitartez, askotariko gaiak eta ikuspuntuak erabiliz, emakumezkoek gure historian izan duten benetako eraginaren aldeko aldarrikapena egin zen, mendeetan ezkutuan izan dena azaleratu eta emakumezkoak ikusarazteko.

Jarduera horietan azaleratu ziren hausnarketa eta ikuspuntu berriek iraunkortasuna izan eta benetako berdintasunaren bidean aurrera egiteko balio dezaten, hona hemen Bizkaiko Batzar Nagusiek argitaratzen duten liburu hau.

Ana Otadui Biteri

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria

Dentro del compromiso de Juntas Generales de Bizkaia con la igualdad entre Mujeres y Hombres establecido en el Plan de igualdad que esta institución echó a andar en 2017 se encuentra la celebración de actividades que nos permitan avanzar por ese camino.

Incluidas en ellas se encuentran las conferencias, visitas y actividades realizadas en las diferentes sedes de esta institución (Bilbao, Gernika, Abellaneda y Gerediaga) dentro de las Jornadas Europeas de Patrimonio celebradas en 2018.

En ellas, desde diferentes temáticas y puntos de vista, se reivindicó el papel real de la mujer en nuestra historia y se abogó por sacar a la luz todo aquello que ha quedado oculto, dotando a las mujeres de una visibilidad que durante siglos no han tenido.

Para que las reflexiones y nuevos puntos de vista difundidos en aquellas actividades puedan perdurar en el futuro y sirvan para avanzar hacia una igualdad real, Juntas Generales de Bizkaia publica este libro.

Ana Otadui Biteri

Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia

Sarrera

Artikulu bilduma hau Bizkaiko Foru Aldundiak 2018an *Ondarea, emakumeen emaria* izenburuarekin antolatutako Ondarearen Europako Jardunaldien egitarauko hitzaldi eta jardueren emaitza da; hitzaldi eta jarduera haiek Bizkaiko Batzar Nagusiek Jaurerrian dituzten egoitzetan egin ziren (Bilbo, Gernika, Abellaneda eta Gerediaga).

Jardunaldien bidez, emakumeek Bizkaiko historian izan duten egitekoa aldarrikatu nahi izan zen, arreta berezia jarriz gizartean, politikan eta ekonomian emakumeek egindako ekarpen guztiei, egiteko hori sistematikoki isildu izan baitu historia tradizionalak.

Aspalditxo sortu ziren arren azken urteetan indar bereziz nabarmentzen ari diren emakumeen eskubideen aldeko mugimenduak izan ziren ekimenaren akuilu, eta ekimen hartatik ateratako ondorioak denboran zehar iraunaraztea da asmoa.

Zehazki, emakumeek gizartearen bilakaera historiko, sozial, ekonomiko eta politikoan izan duten egitekoa aldarrikatzea eta orain arte ez bezalako ikusgarritasun eta nabarmentasuna aitortzea zen gakoa.

Horretarako, egoitza bakoitzean proiektu jakin batzuk garatu ziren, urrian zehar, eta horien emaitza da, hain zuzen, hemen aurkezten duguna.

Bilbon, Arantxa Pereda Angulok emakumeek landutako artelanen barrenako ibilbidea proposatu zuen, XX. mendearen 80ko hamarraldiaren hasieran Batzar Nagusiek sortu zuten eta urteek aurrera egin ahala osatu duten bildumako obrak oinarri harturik.

Gernikan, Jaione Agirre García, Ainara Arranz Núñez eta Ainara Martínez Matiak emakumeen *ikusiezintasun historikoaren* kontzeptuaz jardun zuten, Batzarretxeko askotariko ondare elementuak ardatz harturik.

Zehazki, Jaione Agirrek agerian utzi zuen Bizkaiko jaunen bilduman nola falta diren, nahita, historian zehar kargu hori beren esku izan zuten emakumeen erretratuak; Ainara Arranzek, bestalde, genero ikuspegitik aztertu zuen *Fernando Katolikoaren Bizkaiko Foruen zina edo muin ematea* koadroa; eta, azkenik, Ainara Martinezek erakutsi zuen nola gelditu diren emakumeak Batzarretxeko irudietatik at, bereziki Batzarretxeko areto nagusietako batean gailen ageri den beirate handian, zeinetan erakusten baitira Bizkaian hainbat mendez egin izan diren ogibideak eta lanak.

Abellanedako egoitzan, gaur egungo Enkarterriko Museoa, Aingeru Berguices panderojole edo *panderetereen* presentziaz eta Bizkaiko eta Enkarterrietako espazio publikoan jai giroan izan zuten garrantziaz mintzatu zen, eta nabarmendu zuen nola baztertu izan diren, maiz, beste kasu askotan bezala, “musikari garrantzizko” jotzen zirenen mesedetan, txistulari, danbolindari edo dultzaineroen mesedetan, zeinak baitziren betiere gizonak.

Introducción

Este conjunto de artículos son el resultado de conferencias y actividades realizadas en las diferentes sedes que Juntas Generales de Bizkaia posee en el Señorío (Bilbao, Gernika, Abellaneda y Gerediaga) dentro del marco de las Jornadas Europeas de Patrimonio organizadas por la Diputación Foral de Bizkaia en 2018 bajo el título *Patrimonio, herencia de mujer*.

A través de estas jornadas se pretendía reivindicar el papel de la mujer en la historia de Bizkaia incidiendo en todas las aportaciones realizadas en el ámbito de lo social, político o económico y que ha sido silenciado sistemáticamente por la historia tradicional.

Fue una iniciativa cuyas consecuencias se pretende que perduren en el tiempo y cuyos orígenes nacen en los movimientos en pro de los derechos de la mujer que, nacidos hace ya mucho tiempo, han ido adquiriendo mayor fuerza durante los últimos años.

De esta manera, se pretende reivindicar el papel de la mujer en el devenir histórico, social, económico y político de la sociedad, dotándola de una visibilidad de la que hasta ahora ha carecido.

De esta manera, en cada sede se desarrollaron una serie de proyectos que se llevaron a cabo a lo largo del mes de octubre y cuyo resultado presentamos aquí.

En Bilbao, Arantxa Pereda Angulo elaboró un recorrido por las obras de arte realizadas por mujeres contenidas en la colección de arte que Juntas Generales creó a principios de los años 80 del siglo XX y que ha ido ampliando con el paso de los años.

En Gernika, Jaione Agirre García, Ainara Arranz Núñez y Ainara Martínez Matía trabajaron el concepto de *invisibilidad histórica* de la mujer a través de diversos elementos patrimoniales conservados en la Casa de Juntas.

Así, Jaione Agirre mostró la ausencia premeditada, dentro de la colección de retratos de señores de Bizkaia, de las mujeres que ostentaron ese cargo a lo largo de la historia; Ainara Arranz, por su parte, dio una visión de género al famoso cuadro *“El Besamanos o La Jura de los Fueros de Fernando el católico”*; y, por último, Ainara Martínez mostró la ausencia de mujeres en las representaciones existentes en la Casa de Juntas, poniendo especial énfasis en su omisión dentro de la enorme vidriera que preside uno de los principales salones de la Casa de Juntas y que es un compendio de los diferentes oficios y trabajos que han caracterizado a Bizkaia durante siglos.

En la sede de Abellaneda, actual Museo de Las Encartaciones, Aingeru Berguices habló sobre la presencia de las pandereteras y su importancia en los ámbitos festivos públicos de Bizkaia y Las Encartaciones, incidiendo en la invisibilización a la que han estado sometidas, relegadas por la presencia de los considerados “músicos importantes”, siempre hombres, txistularis, tamborileros o dulzaineros, entre otros casos.

Horrez gainera, Mariefi Pérez Elexpek memoria historikoari buruzko lan bat aurkeztu zuen. Sopuertako 14 emakumeren elkarrizketetan oinarritutako lan bat da, zeinaren bidez aditzera ematen baitu emakumeek gizartean bete izan duten egitekoa, baita haien kezkek, desirak eta itxaropenak ere, gehienak zapuztuak, erregimen frankistaren ondorioz, emakumearen kontrako zapalkuntza bultzatu baitzuen sistema hark. Itxaropenerako tarte bat uzten du, halere, amaieran, gogoraraziz nola lortu zuten emakumeek 70eko hamarraldiaz geroztik herriko bizitza aktiboan parte hartzen hastea, Gaurko Emakumeak elkarteak sortuz, besteak beste, zeina izan baitzen emakumeei buruzko memoria historikoko lan hau gauzatzeko abiapuntua.

Azkenik, Gerediagan, Durangerriko historiako gertaera esanguratsu bat aztertu zuen Jon Irazabalek; hain zuzen ere, 1617an Durangoko Merindadeko fidelek (alkateek) Gerediagako Batzarretan bildurik sorginen kontrako neurriak hartzea erabaki zutenekoa. Gertaera hark, argi erakutsi zuen zer-nolako kutsu negatiboa jasan behar izan duten emakumeek historian zehar, emakume izate hutsagatik.

Argitalpen honek, azken batean, lan horietan guztietan egindako ikerketa lana zabaltea du xede. Bilduma honen bidez, eten egin nahi da emakumeek mendez mendeko beren gizarteetan izan duten funtsezko egitekoa ikusezin bihur zedin bultzatu duen inertzia historikoa. Tresna bat izan nahi du Bizkaiko historiaren, gizartearen eta ekonomiaren irakurketa osoagoa eta, beraz, errealitateari lotuagoa egin ahal izateko. Irakurketa berri hauek emakumeek hainbat esparrutan izandako presentzia aldarrikatzen dute, eta orain arte aintzat hartu ez diren espazio batzuetan izandako garrantzia aitortzen diete.

Igualmente, Mariefi Pérez Elexpe presentó su trabajo sobre memoria histórica centrado en entrevistas a 14 mujeres de Sopuerta, desgranando su papel dentro de la sociedad así como sus inquietudes, deseos y esperanzas, truncados la mayor parte de ellos por la imposición de un sistema absolutamente represor contra la mujer como fue el régimen franquista. Termina con un canto a la esperanza, recordando como aquellas mujeres consiguen, desde los años 70, formar parte activa de la vida del pueblo, llegando a crear la asociación Gaurko Emakumeak que fue el germen a partir del cual se pudo hacer este trabajo de memoria histórica en clave de mujer.

Finalmente, en Gerediaga, Jon Irazabal estudió un episodio histórico relevante en la historia del Duranguesado como fue el ocurrido en 1617 por el que fieles (alcaldes) de la Merindad de Durango reunidos en las Juntas de Gerediaga decidieron tomar medidas contra las brujas, mostrando de esta manera las connotaciones negativas que, por el hecho de serlo, han tenido que sufrir muchas mujeres a lo largo de la historia.

Esta publicación, en definitiva, busca difundir la labor de investigación realizada en todos estos trabajos. A través de esta recopilación se quiere interrumpir la inercia histórica que ha propiciado la invisibilización de las mujeres dentro de las sociedades que han existido a lo largo de los siglos. Pretende ser una herramienta que ofrezca una lectura de la historia, la sociedad y la economía de Bizkaia más completa, y por lo tanto, más fiel a la realidad. Estas nuevas lecturas reivindican la presencia de las mujeres en diferentes ámbitos, y reconocen, de esta forma, su importancia en espacios en los que hasta ahora han sido omitidas.

**Mendietaren
eskumuina:
Europako artearen
emakumeen
lehenengo
erretratu
kolektiboa.
Genero ikuspegia.**

El besamanos de
Mendieta: primer
retrato colectivo
de mujeres en el
arte europeo. Una
visión de género.





Kultura zabalkundearen arloan, maiz gertatu ohi da Bizkaiko Erdi Aroari buruzko edukiak azaltzean publikoak *Fernando Katolikoaren Bizkaiko Foruen zina edo muin ematea* obra aipatzea.

Oro har, ez dira behar bezain sakon ezagutzen obra haren sinbologia eta mezua, eta interpretazio ez oso zuzenak egin ohi dira askotan horiei buruz. Hala ere, hartaz mintzatzean, oro har jotzen du jendeak obra hau bere imajinario kolektiboaren partetzat. Bizkaiko jaunak gogoratzen dituzte, baita aipatu ere haien izenak eta “*emakume burukodun horiek*”, emakume horiei buruz ezer gutxi edo ezer ere ez dakiten arren. Gertaera honek –koadroa hain ezaguna izanik haren *esparru femeninoaren* ezagutza hain ezdeusa izateak, zehazki-argi erakusten du nola egon diren emakumeak baztertuta, ikusezin bihurtuta, historian zehar.

Bistakoa baita nahita ezkutatu izan dela emakumeek historian zehar garaiz garai izandako presentzia eta emakumeek jasan behar izan ditugun nagusikeriazko harremanen isla baino ez dela ikusezintasun hori. Historian zehar finkatutako egitura heteropatriarkalak alboratu egin gaitu, isildu egin gaitu, eta bada garaia mendez mende isiltasunera kondenatutako emakume horiei ahotsa itzultzekoa. Horregatik iruditzen zaigu biziki interesgarria “*Europako artearen historiako emakumeen lehen erretratu kolektibo*” hau¹ genero ikuspegitik aztertzea eta *esparru femeninoaren* irudikapen horren atzean zer ezkututzen den ikustea.

Francisco de Mendieta² Fernando Katolikoaren zina irudikatzea erabaki zuenean, 1609an margotu zuen koadroak 1476ko uztailean 30ean Gernikan egindako ekitaldi bat ilustratzen du; ekitaldi hartan, hain zuzen, Fernando Aragoikoak Bizkaiko Jaurreriaren foruak zin egin eta berretsi ostean, jaun gisa onartuko zutela promes egin zioten bizkaitarrek errege hari, muin emate luze eta arranditsu baten bidez. Egun hartako aktaren arabera, 150 bizkaitar bildu zituen ekitaldiak, emakume bakar bat ere ez haien artean.

Mendieta, ordea, ez baitzuen enkarguz egin obra hura, itxuraz, identitatearen ikur diren burukoez jantzitako emakumeak jarri zituen alkateen tokian, eta, hala, jatorrizko ekitaldiarekin bat ez datorren baina atzean egilearen unibertso ideologikoa duen eszena bat osatu zuen. Erabaki horri esker, emakumeak ikusten dira garai hartan ohi zenez publikoki senarrek edo tutoreek ordezkaturik egotea legokiekeen gizarte eta denbora testuinguru batean egindako ekintza instituzional batean.

Emakumearen irudikapenak, Mendieta lan etnografiko sakona erakusten du, ageriko baita bikain ezagutzen zituela gure lurreko ohiturak eta burukoak. Orobat dira ikusgarriak irudi maskulinoak, egilearen beste pasioetako bat baitzen ikerketa genealogikoa. Bestalde, obrak, oro har hartuta, egilearen ideologia foruzalea aditzera ematen du, foru sistemaren laburpena irudikatzen baitu, forua harturik Jaunak, kasu honetan, erregeak, errespetatu beharreko bizkaitar herritarren eskubide gisa.

1 Alberto Santanak halaxe izendatua.

2 XVI. mendearren bigarren erdia eta XVII. mendearren lehen laurdena. Bere ibilbidearen parte handi batean, Bázquez abizena erabili zuen margolari honek, bere babesle Francisco Bázquez bilbotarrarekiko maitasunaren erakusgarri. Haren etxean zerbitzari izan zen eta bizi izan zen ezkontzaz kanpoko bere seme-alabekin margolariaren ama, María de Retes, Mendieta auzokoa (Artzeniega). Gerora, Pedro de Mendieta, seme-alabak aitortu zituen, eta hortik dator margolariaren abizen aldaketa.

En el ámbito de la difusión cultural son numerosas las ocasiones en las que al trasladar contenidos relativos a la Edad Media vizcaína el público menciona la obra “*El Besamanos o La Jura de los Fueros de Fernando el católico*”.

En general, desconocen su simbología y su mensaje, realizándose interpretaciones a veces no demasiado correctas. A pesar de ello, todos reconocen esta obra como parte de su imaginario colectivo. Recuerdan a los señores de Bizkaia, incluso mencionan sus nombres y a “*esas mujeres con tocados*” de las que poco o nada saben. Este hecho en concreto, este desconocimiento de *lo femenino* en un cuadro tan conocido, es sin duda un claro síntoma de la invisibilización sufrida por la mujer a lo largo de la historia.

Porque si algo hemos de tener claro es que la presencia de la mujer en las diferentes épocas históricas se ha omitido deliberadamente, algo que no es sino el reflejo de las relaciones de dominación a las que hemos estado sometidas. La estructura heteropatriarcal forjada a través de la historia nos ha mantenido al margen, acallándonos y es hora de que devolvamos la voz a todas esas mujeres silenciadas durante siglos. Por ello, es interesante analizar, desde una perspectiva de género, este “*primer retrato colectivo de mujeres de la historia del arte europeo*”¹ y conocer la realidad que subyace tras esta representación de *lo femenino*.

Cuando Francisco de Mendieta² decidió representar el “*Besamanos de Fernando el católico*” se tomó ciertas libertades. El cuadro, realizado en 1609, ilustra el momento concreto del acto celebrado en Gernika el 30 julio de 1476 en el que Fernando de Aragón, tras jurar y confirmar los fueros del *Señorío de Vizcaya*, recibe la promesa de los vizcaínos de aceptarle como señor, simbolizado en un largo y solemne besamanos. El acta de aquel día describe la presencia de 150 personajes vizcaínos entre los que no se encuentra ninguna mujer.

Pero Mendieta, que aparentemente no seguía encargo alguno al realizar la obra, decidió sustituir a los alcaldes por mujeres ataviadas con tocados identitarios, representando así una escena que difiere del acto original pero en la que subyace el universo ideológico del autor. Gracias a esta decisión, las mujeres se harán visibles en un acto institucional celebrado en un contexto social y temporal en el que serán sus maridos o tutores los que las representen públicamente.

La representación femenina que aquí vemos muestra, además, un elaborado trabajo etnográfico por parte de Mendieta, gran conocedor de los hábitos y tocados de nuestra tierra; algo que también ocurre con la masculina, pues ésta responde a otra de las pasiones del autor, los estudios genealógicos. Igualmente, la obra en su totalidad refleja la ideología foralista del autor pues sintetiza el sistema foral, mostrando el fuero como derecho del pueblo vizcaíno que el Señor, en este caso el rey, había de respetar.

1 Denominado así por Alberto Santana.

2 Segunda mitad del XVI y primer cuarto de siglo XVII. Pintor que durante gran parte de su trayectoria usará el apellido Bázquez debido al amor que profesará a su mentor, el bilbaíno Francisco Bázquez, en casa del cual su madre María de Retes, originaria del barrio de Mendieta (Artzeniega), servirá y vivirá junto a sus hijos ilegítimos. Pedro de Mendieta, los reconocerá derivando esto en el cambio de apellido del autor de esta obra.

Emakume irudia, herri izaeraren adierazpena

Mendietak marraztutako gizonetako bakoitza Behe Erdi Aroko pertsonaia historiko bati dagokio; aldiz, izengabeak dira Mendietaren emakumeak. Hala ere, burukoaren bidez, nolabaiteko bereizgarritasuna eta nortasuna aitortzen zaie; izan ere, burukoaren formaren eta tipologiaren arabera, emakume irudiaren eta haren jatorriaren arteko lotura egin daiteke. Beren herriko, beren lurraldeko jendeen ordezkari bihurtzen dira, horrela, emakumeak; herri izaeraren ordezkari dira ekitaldian.

Idea horri jarraituz, behealdean kapare odolgarbiak jarri zituen margolariak, eta goikoan, berriz, emakume modura irudikatuta, herritarrak, zeinak bereganatu zituzten kapareen pribilegioak 1526an Foru Berriak ezarritako kaparetasun unibertsalaren bidez. Artistak, azken batean, Foru Berriak emandako eskubide unibertsalak aldarrikatu nahi ditu, aurre eginez XVII. mendearen hasieran Espainiako arlo judizialek haien kontra bideratutako erasoei³.

Irudia, gainera, gaztelar erregeek Goi Erdi Aroko bandoen arteko borroketatik haragotako sistema bat bultzatu zuten testuinguruan kokatzen da. Testuinguru hartan, Gaztelako monarkiak egonkortasun politikoa, justizia, lasaitasuna eta Foruarekiko errespetua eskaintzen zuen, eta goresgarria zen hori Mendietarentzat, bandoen arteko gerrek herrialdeari ekarri zioten hondamenaren aurrez aurre.


Foruaren defentsa horretan, margolariaren motibazio pertsonal batek ere izan zuen zeresana; izan ere, sasiko semea izanik, kaparetasun unibertsalari esker lortu zuen legearen aurreko berdintasuna, eta emakume irudietan adierazi zuen berdintasun hori, bere burua emakumeengan ezagututa. Horrela, agertu ziren emakumeak ordezkari politiko gisa irudikatuta, sinbolikoki bada ere, Europako artearen historian lehen aldiz.

Interpretazio horri helduta, arte politikoaren erakusgarri modura birpentsa dezakegu obra hau, eta ez adierazpen historiko huts gisa.

Burukoa berrinterpretatzea: elementu tradizionala edo kontrol sozial eta moralaren sinboloa?

Obraren mezu politikoa aztertuta, interesgarria da, halaber, esparru femeninoaren irudikapena genero ikuspegitik aztertzea, gure lurraldeko burukoetan sakonduz.

Buruko tradizionalei dagokienez transmititu den herri ezagutzaren arabera, emakume ezkonduen Erdi Aroko janzkeraren elementuak dira, eta emakumeen jatorria adierazten



Francisco de Mendieta sinadura

Firma de Francisco de Mendieta

La figura femenina como representación de lo popular


Cada uno de los hombres representados por Mendieta se identifica con un personaje histórico bajo medieval mientras que las mujeres de Mendieta se pierden en el anonimato. Sin embargo, por medio del tocado se les concede cierta identidad, puesto que a través de la forma y la tipología de este elemento se establece un vínculo entre la figura femenina y su lugar de origen. Las mujeres se convierten de este modo en representantes de las gentes de su localidad, del territorio, son la expresión popular de la ceremonia.

Siguiendo esta idea, el autor presenta en el plano inferior a los hidalgos de sangre mientras que en el superior, en forma de mujeres, dibuja al pueblo que sólo a través de la hidalguía universal establecida por el Fuero Nuevo de 1526 adquiere los privilegios de aquellos. El artista pretende poner de manifiesto, en definitiva, los derechos universales que el Fuero Nuevo otorga y defenderlo frente a los ataques que se están sucediendo por parte de las esferas judiciales españolas a principios del siglo XVII³.

La representación, además, se sitúa en un contexto en el que los reyes castellanos impulsan un sistema superador de las luchas de bandos tardo medieval. La monarquía castellana, por tanto, ofrece estabilidad política, justicia, tranquilidad y respeto al Fuero, y Mendieta lo enaltece frente a la destrucción del país que supusieron las guerras banderizas.

Esta defensa del Fuero tendrá, por otra parte, una motivación personal por parte del pintor puesto que, debido a su origen bastardo, sólo la hidalguía universal reconocerá su igualdad ante la ley y, para él, esta se encarnará en las figuras femeninas y será en ellas donde

3 Lectura realizada por Alberto Santana.



Francisco de Mendieta pintor vezino de Vلبao
(Kaperatasunaren eta odol garbitasunaren froga.
1592). Bizkaiko Foru Agiritegia.

Francisco de Mendieta pintor vezino de Vلبao
(Probanza de hidalguía y limpieza de sangre. 1592).
Archivo Foral de Bizkaia.

dute, diseinuaren bidez. Artikulu askok lotzen dute burukoen erabilera emakume haiek handitasuna erakusteko zuen irrikarekin, arreta erakartzeko irrikarekin; gogoe-ta horiek egia izatera ere, gutxitan jartzen dute zalantzan haiek erabiltzeko derrigortasuna eta planteatzen dute burukoa garai hartako neurri errepresiboen adibide gisa.

XVI. mendeko zenbait udal ordenantza genero ikuspegitik aztertuta, bertan behera gelditzen da burukoen ikuspegi folkloriko hori, eta agerian gelditzen da, aldiz, agintarien eta, oro har, gizarte patriarkal osoaren errepresio, kontrol eta inposizioari lotuta dagoela haiek erabiltzeko derrigortasuna. 1593ko *Bilboko Ordenantzak*⁴ gainetik irakurrita, berehala ohartuko gara burukoa erabiltzearen derrigortasunaz eta agindu hori ez betetzearen ondorioez: 75. atala “Dontzeila ez diren neskatilek burukoa jantztea”: agindu zuten hiribildu honetako neska bertatiar nahiz atzerritarrik inola ere ez dadin ausartu, baldin eta gizonen batekin haragizko harremana eduki izanagatik haren izena publikoki belztu bada eta birjintasuna urratuta badu, burukorik gabe ibiltzera edo egotera hiribildu honetan, ezagun gera dadin halaxe dela, eta, hala izanik, burukoa bere borondatez jantzi ezean justiziaren bidez behartua eta premiatua izan dadin, zigorpean: espetxe publikoan jarri eta handik ateratzea burukoa jantzita, eta ordaintzea, gainera, mila marabediko zigorra, aipatutako alkate eta epaileei aplikatuak; eta horiek ordaintzerik ez balu, erbestera dezaten hiribildu honetatik eta haren jurisdikziotik, urtebetez, zehazki, kontuan harturik esperientziak erakusten duenez halakorik egin ezean gertatu direla hainbat iruzur eta eragozpen, eta saldu direla neska horietako asko, desloratuta egonik (baina hala zela ezagun gelditu ez direlarik), neska prestutzat eta garbitzat eta horrela engainatuak izan direla zenbait gizon”.

Ordenantza gogorra da; iraingarria ere bai, femeninotasunaz gaur egun dugun ikuspegitik. Baina testuinguru hartan emakume izateak esan nahi zuenari eta moral kristauak araututako gizarte batean birjintasunari aitortzen zizaion indarrari erantzuten dio. Ez da, beraz, harritzekoa eliz aginduetan burukoaren erabilerari buruzko adibide moralizatzaileak aurkitzea, hala nola: “Emakumeei agintzen diegu ezkondu ondoren jantzi dezatela burukoa, erditu arte itxaron gabe, hala egiten baitute emakume askok eta askok, jakinarazi digutenez, kontuan hartu gabe nolako eragozpen itzelak ekar

4 Andrés de Mañaricuak bilduak.

el autor se reconozca. Es así como, por primera vez en la historia del arte europeo, las mujeres se hacen visibles, aunque sea de forma simbólica, en la representación política.

Por tanto, esta interpretación nos hace repensar la obra tomándola como ejemplo de arte político y no sólo como una mera representación histórica.

Reinterpretando los tocados: ¿elemento tradicional o símbolo de control social y moral?

Analizado el mensaje político de la obra, resulta muy interesante abordar la representación de lo femenino desde una visión de género, indagando en la naturaleza de los tocados de nuestro territorio.

El conocimiento que sobre los tocados tradicionales se ha transmitido a nivel popular se limita a reconocerlos como elementos de la vestimenta medieval de las mujeres desposadas que, a través de los diferentes diseños, nos muestran su procedencia. Son numerosos los artículos que relacionan su uso con el afán ostentador de estas mujeres, con sus ansias de mostrar grandeza y sentirse centro de toda atención, reflexiones que, aún estando en lo cierto, rara vez cuestionan la obligatoriedad de uso ni se plantean su existencia como síntoma de las medidas represivas de la época.

El análisis desde una perspectiva de género de varias ordenanzas municipales del siglo XVI desmonta esa visión folclórica de los tocados y nos presentan su uso ligado a una realidad llena de represión, control e imposición por parte de las autoridades y del conjunto de la sociedad patriarcal. Una rápida lectura de una de las *Ordenanzas de Bilbao de 1593*⁴ nos muestra la obligatoriedad de uso del tocado y las consecuencias derivadas del incumplimiento de dicha orden : *Cápítulo 75 “Las mozas que no son doncellas que se pongan tocados”*: *ordenaron que ninguna moça natural ni forastera desta dicha villa, que este infamada publicamente de aver tratado con algun varon carnalmente, y estar corrompida de su virginidad, no sea osada de andar, ni estar en esta dicha villa, sin ponerse luego sus tocados, de manera que sea conocida sopena que si ella de su voluntad no las pusiere, sea compelida y apremiada a ella por justicia, aunque ella no las quiera poner, poniendola en la carcel publica, y sacandola de alli tocada, y demas pague mil maravedis de pena, aplicados para el dicho Alcalde y jurados; y no teniendo de que los pagar, sea desterrada desta dicha villa y su jurisdicion, por tiempo de un año precisamente, atento que la experiencia ha mostrado, que de no se hazer lo suso dicho, han resultado muchos fraudes y inconvenientes, y muchas de las dichas moças estando desfloradas (por no ser conocidas) se han vendido por honestas y limpias, y enganado a diversos hombres”*.

La ordenanza no tiene desperdicio, resultando incluso ofensiva para nuestra actual concepción de lo femenino, pero simplemente responde a lo que ser mujer significaba en dicho contexto y el peso conferido a la virginidad en una sociedad regida por la moral cristiana. No es por tanto de extrañar que encontremos ejemplos de afán moralizador

4 Recogidas por Andrés de Mañaricua.

ditzakeen burukoa ez erabiltzeak, eta, horrenbestez, jantzi dezatela aurrerantzean, eta ordain dezatela eskumikatzearen zigorrarekin eta elizaren fabrikarako bi dukatekin eta errebelak erretira ditzala bikarioak jainkozko ofizioetatik, harik eta agindutakoari men egin eta zigor hori ordaintzen duten arte.”⁵

Bilboko ordenantzaren eta eliz aginduaren helburuak bat zetozen: emakumeen sexu izaera identifikatzea, ezkontzan inolako iruzurrik izan ez zedin, garai hartako gizarte antolaketa funtsezko egitura baitzen ezkontza. Horrela, apaingarri haren erabilerak hainbat gizarte bereizgarri aditzera ematen zituen: burukorik gabeko emakumea familiaren babespeko emakume birjintzat jotzen zen, eta, beraz, ezkontzarako baliagarritzat; emakume burukoduna, aldiz, birjintasuna galdutako, ezkonduko eta senarraren babespeko emakumea zen.

Kasu batean nahiz bestean, emakumeek partaidetza mugatua zuten gizartean, eta guztiz baztertuta zeuden bizitza politikotik. Emakumeak politikaren esparrutik at uzteak aukera eman zuen emakumeenganako lege corpus eta ordenantza sorta erabat zapaltzailea garatzeko, eta, bide horretatik, gizarteak isiltasuna ezarri eta botoa ukatu zien emakumeei, zeinak agertu baitziren, Mendieta esker, euskal bizitza publikoan lehen aldiz irudikatuta eta aintzatetsita.

Zorionez, gaur egungo ordezkartza politikoan oso bestelakoa da argazkia, dagoeneko ez baikaude ordezkartza sinbolikoen beharrean: azken hamarraldietan egindako lanari esker, emakumeek gero eta partaidetza zabalagoa dute politikan, Bizkaiko legebiltzarraren esaterako, zeina baita berdintasunaren erakusgarri.

Bibliografia

LLANO GOROSTIZA, Manuel. *“Francisco de Mendieta y su cuadro sobre el besamanos de la jura de Guernica”*. “Tres Estudios sobre Guernica y su Comarca” obraren separata. Bizkaiko Foru Aldundia, 1970

GARCIA DE CORTAZAR, José Ángel; ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz; RÍOS RODRIGUEZ, María Luz eta DEL VAL VALDIVIESO, ISABEL. *“Bizcaya en la Edad Media III. Evolución demográfica, social y política de la comunidad vizcaína medieval”*. Donostia: Haranburu Editor. 1985

DE MAÑARICUA, Andrés. “Las ordenanzas de Bilbao de 1593”. Bilboko Udala. 1954

CASTRILLO CASADO, Janire. “Mujeres y matrimonio en las tres provincias vascas durante la Baja Edad Media”. Euskal Herriko Unibertsitatea. Vitoria-Gasteiz. 2012

ASPURU ORIBE, Javier. “Francisco de Mendieta, un ayalés universal”. *Aztarna aldizkaria*, 43. zk., Amurrio. 2012

ligados al uso del tocado en sendos mandamientos eclesiásticos: “*Mandamos a las mujeres que tras casarse se pongan el tocado sin aguardar a hacerlo hasta que paran como somos informados acostumbran muchas sin reparar en los grandes inconvenientes que pueden resultar de lo contrario y así lo hagan y cumplan pena de excomunión y de dos ducados para la fábrica de la iglesia y a las rebeldes retire el vicario de los divinos oficios hasta que obedezcan y paguen la dicha pena.*”⁵

La finalidad de la ordenanza bilbaína y la del mandamiento eclesiástico coinciden: identificar la condición sexual de la mujer, evitando engaño alguno de cara al matrimonio, clave en la articulación social de la época. De esta manera, el uso de este ornamento tendrá connotaciones sociales: una mujer sin tocado será percibida como mujer virgen tutelada por la familia, disponible para convertirse en pieza clave de la futura alianza matrimonial; la mujer tocada, sin embargo, será identificada como mujer desviada, desposada y bajo tutela marital.

En ambos casos la mujer tendrá limitada su intervención en la sociedad, quedando totalmente excluida de la vida política. Esta exclusión de lo femenino en el quehacer político permitió desarrollar un corpus legal totalmente represivo hacia la mujer, dando lugar a una serie de ordenanzas que no serán más que el reflejo de una sociedad que acalló y denegó el voto a todas esas mujeres vascas que, gracias a Mendieta, fueron representadas y reconocidas por primera vez en la vida pública vasca.

Afortunadamente la actual representación política presenta una imagen totalmente opuesta pues ya no son necesarias representaciones simbólicas gracias a la labor de las últimas décadas en la que las mujeres se han incorporado de manera progresiva a la vida política, convirtiéndose nuestro parlamento vizcaíno en un claro ejemplo de igualdad.

Bibliografía

LLANO GOROSTIZA, Manuel. “*Francisco de Mendieta y su cuadro sobre el besamanos de la jura de Guernica*”. Separata de la obra “Tres Estudios sobre Guernica y su Comarca”. Diputación Provincial de Vizcaya, 1970

GARCIA DE CORTAZAR, José Ángel; ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz; RÍOS RODRIGUEZ, Maria Luz y DEL VAL VALDIVIESO, ISABEL. “*Bizcaya en la Edad Media III. Evolución demográfica, social y política de la comunidad vizcaína medieval*”. San Sebastián: Haranburu Editor. 1985

DE MAÑARICUA, Andrés. “Las ordenanzas de Bilbao de 1593”. Ayuntamiento de Bilbao. 1954

CASTRILLO CASADO, Janire. “Mujeres y matrimonio en las tres provincias vascas durante la Baja Edad Media”. Universidad del País Vasco. Vitoria-Gasteiz. 2012

ASPURU ORIBE, Javier. “Francisco de Mendieta, un ayalés universal”. Revista Aztarna nº43. Amurrio. 2012

⁵ Mandamiento estampado por el visitador eclesiástico de la diócesis de Pamplona en el libro parroquial de Lesaka en 1629.

**Emakumezkoen
lanbideak Bizkaiko
historian. Genero
hurbilpen bat
Gernikako
Batzarretxeko
irudikapenetatik
abiatuta.**

Profesiones de mujeres
en la historia de Bizkaia.
Una aproximación de
género a partir de las
representaciones en
la Casa de Juntas de
Gernika.





Gernikako Batzarretxea edo Juntetxea, Bizkaiko Batzar Nagusien biltoki eta egoitza izateaz gainera, Euskal Herriko biztanleen identitatearen sinbolo ere bada. Bizkaiko organo instituzional nagusiaren egoitza den etxe hau Antonio de Echevarria bizkaitar arkitektoak diseinatu zuen, 1826an, eta Bizkaiko historian garrantzi handia duten bi sinbolo -Gernikako Arbola eta Antiguako Andra Mari baseliza- zeuden lekuan dago eraikia: izan ere, Gernikako Arbola mitikoaren inguruan biltzen ziren lurraldeko elizate guztietako ordezkariak, eta Antiguako Andra Mari baselizan egin behar izaten zuten foruen zina Bizkaiko Jaun eta Andreak, Jaurreriko biztanleek agintari nagusitzat onartuko bazituzten. Beraz, bizkaitar guztiak ordezkatzeko dituen (edo, gutxienez, ordezkatu beharko litzuzkeen) monumentu multzo bat dugu Batzarretxea. Etxearen barruan dauden pinturek, beirateek, margolanek, eskulturek eta bestelako objektuek Bizkaian bizi diren eta bizi izan zirenen balioak irudikatzen dituzte sinbolikoki. Sendotasuna, tradizioekiko errespetua, gotortasuna, eta, jakina, lanerako prestasuna dira balio horietako batzuk. Bai batzar aretoko beirateetan, bai patio zaharreko estalki beiradunetan, gure Lurralde Historikoaren aurrerabidea ekarri duten ogibideak eta lanbideak daude irudikatuta. Itsasoko lanak, laborantza, merkataritza, abelazkuntza, industria, meatzaritza... denek dute beren tokia eraikineko areto nagusietan. Gainera, areto horietako hormetan, edo lehendakaritza bulegoarenetan, tradizioekiko errespetu hori eta lurraldeko usadiozko lanbide eta eginkizunak azaltzen dituzten artelanak edota boterea beren esku izan duten pertsonen balioak eta dohanak goratzen dituzten erretratuak daude eskegita.

Gaur, beste begirada batekin bisitatuko ditugu toki horiek, genero ikuspegiak ematen digun begiradarekin, alegia. Izan ere, lerro hauen helburua honakoa aztertzea da: balio komun horien irudikapenek ea zer neurritan hartu dituzten kontuan, garaian-garaian, emakumezkoak eta gizonetzkoak. Une batzuetan presentzia batzuk nabarmendu izanaren arrazoia eta beste batzuetan absentsia deigarri batzuk onartu izanaren zergatia zein den ulertzea da gure asmoa. Eta gure ondarearen berrirakurketa honek gizarte bidezkoago bat -emakumezkoak zein gizonetzkoak iraganean egindako eta gaur egun egiten ari garen ekarpenen kontzientzia argiagoa izango duen gizarte bat- eraikitzen lagun diezagukeela sinetsita dihardugu guk horretan, hartara gizarteak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko amets utopiko hori benetako egitate bihurtetik gertuago egongo den etorkizun baten alde lan egin ahalko duelakoan.

Batzar Gela: bilkura areto batean bizitako hiru une historiko

Eraikineko gela garrantzitsuenetako batean -garrantzitsuena ez bada- hasiko dugu berrirakurketa hori: Batzar Gelan, erakundearen bilerak egin ohi diren tokian. Han egin beharko diogu lehenengoz aurre gogoeta hau gidatzen duen galderari: emakume bizkaitarren zereginak behar adina ordezkaturik ote daude getetako irudikapenetan, emakumezkoen lanak gizartearentzat nolako garrantzia izan duen kontuan hartuta? Galderak beste deribatu bat planteatzen digu berehala: kultur ondarea hura sortu, zaindu, transmititu eta interpretatu duen gizartearen isla eta, aldi berean, emaitza ere badela onartzen badugu, zer neurritan egon gara presente emakumeek ondarearen «balio kate» horretan?

Lehen begiratuan bestela badirudi ere, galdera ez da erantzun erraza. Sinplifikazioan

La Casa de Juntas de Gernika, que acoge las Juntas Generales de Bizkaia, es también un símbolo de identidad de las y los habitantes del País Vasco. Como sede del máximo órgano institucional de Bizkaia, fue proyectada en 1826 por el arquitecto vizcaíno Antonio de Echevarria, y se encuentra en el lugar donde se levantaban dos hitos fundamentales: el mítico Árbol de Gernika, en torno al cual se reunían los representantes de todas las anteiglesias del territorio, y la ermita de Santa María La Antigua, donde los Señores y Señoras de Bizkaia debían jurar los fueros si querían ser aceptados como máxima autoridad por los habitantes del Señorío. Es, por tanto, un conjunto monumental que representa (o, al menos, debería representar) a vizcaínas y vizcaínos. En su interior pinturas, vidrieras, cuadros, esculturas y otros objetos encarnan simbólicamente los valores de quienes habitan y han habitado en Bizkaia. Valores como la fortaleza, el respeto a las tradiciones, el esfuerzo y, por supuesto, el trabajo. Tanto los vitrales del salón de plenos como la inmensa cubierta acristalada del antiguo patio tienen como temática central los oficios y profesiones que han contribuido al desarrollo de nuestro Territorio Histórico. Las labores de la mar, la agricultura, el comercio, la ganadería, la industria, la minería... todos ellos tienen su presencia en las salas más importantes del edificio. Además, en las paredes de estas estancias, o en las del despacho de la presidencia, cuelgan obras de arte que se refieren también a la observancia de las tradiciones, a distintos oficios y quehaceres, o bien retratan a quienes han ostentado el poder, ellos también ensalzados en sus valores y virtudes.

Hoy revisitamos esos lugares con una mirada diferente, la que nos da la perspectiva de género. El objetivo de estas líneas es analizar en qué medida la representación de estos valores comunes ha tenido en cuenta, en cada época, a mujeres y hombres. Pretendemos entender por qué en algunos momentos se han subrayado determinadas presencias y por qué en otros se han permitido clamorosas ausencias. Y lo hacemos desde el convencimiento de que esta relectura del patrimonio puede contribuir a la construcción de una sociedad más justa, que sea consciente de las aportaciones de todos y todas en el pasado y en el presente, y pueda así trabajar en un futuro en el que la igualdad entre hombres y mujeres esté más cerca de ser un hecho que de constituir una noble pero utópica aspiración.

La Sala de Juntas: tres momentos históricos en un salón de plenos

Comenzamos nuestra relectura del edificio en la que, probablemente, es su dependencia principal: la Sala de Juntas, el lugar donde se celebran los plenos de la institución. Es allí donde nos enfrentamos por primera vez al interrogante que guía esta reflexión: ¿están representados los quehaceres de las mujeres vizcaínas de acuerdo con la importancia que han tenido para la sociedad? Un interrogante que, inmediatamente nos plantea una segunda derivada: si admitimos que el patrimonio cultural es, a la vez, reflejo y resultado de las sociedades que lo han creado, preservado, transmitido e interpretado, ¿en qué medida hemos estado presentes las mujeres en esta «cadena de valor» del patrimonio?

Aunque a primera vista la respuesta pudiera parecer sencilla, contestar a estas preguntas no es tarea fácil. Podríamos, obviamente, caer en la simplificación. Responder, por

erortzeko arriskua daukagu, gainera. Esan dezakegu, adibidez, patrimonializazio prozesuak pertsona kualifikatuenek gidatzen dituztela beti, baita orain ere, eta, beraz, halakoetan emakumeak egotea edo ez egotea haien trebakuntza mailaren ondorio baino ez dela: emakumerik egon ez bazen, edo ez badago, neurria eman ez dutelako da, behar adinako gaitasun, prestakuntza edo ezaguerarik ez zutelako ez eraikuntzak, margolanak eta eskulturak egiteko, ez ikasketak, berrikuntza lanak, aukeraketak, balorazioak, legeak egiteko, ez inori babesa eskaintzeko, ez idazlanak edo kontakizun-



nak moldatzeko ere. Horren arabera, emakumeak gure ondare kulturaleko objektuetan ez agertzearen arrazoia hautespen natural antzeko baten ondorio izango litzateke. Uste horren arabera, gure arteko banako egokienez soilik dute kulturarako sarbidea, haiek soilik kultura sortzeko eta transmititzeko edota hartaz gozatzeko aukera. Logika darwindar horrek konponbide tentatzaile bat eskaintzen digu hemen, guri gai hau behin betiko alde batera uzteko eta -askok nahi luketen moduan- beste kontu batzuek arduratzeko aukera emango ligukeen irtenbide lasaigarri bat. Baldin eta, hori bai, emakumeen trebakuntza txikiago horren zergatiaz galdetu gabe aurrera egiteko gauza bagara, hezkuntza erakundeetan eta erabaki organoetan -kultura deitu diogun eta ondare komuntzat daukagun horren erabaki organoetan- emakume gutxiago egotearen atzean dauden arrazoien inguruan gogoeta egin gabe, alegia.

zituzten ikuspegiak, nazionalismoaren eta nazional katolizismoaren bertsio muturrekoek bideratuta. Gizartearen sektore ahalik eta handiena berenganatzeko lehian, baina puntu honetan bat eginik, estutu egiten zituzten emakumeak eremu publikotik atzera egin zezaten eta Errestaurazioaren eta Errepublikaren garaian irabazitako lekua utz zezaten.

Presioa horrenbestekoa izan zen, ezen *panderetere* asko eta asko etxeko eremuan gorde ziren, eta haien ia erabateko desagertzea eragin zuen horrek. Arrazoi horrexegatik da gerraondoko *panderetereen* zerrenda hain urria; edonola ere, ofizio haren tradizioaren ikuspegi guztiz adierazgarria eskaintzen du. Erakusgarri bikainak izan ziren, besteak beste, Felisa Bermeosolo (Natxitu, 1899-1992), Maurizia Aldeiturriaga (Egia, Zeberio, 1904-1988), Romualda Zuluaga (Galdakao, 1913 -1974) eta Juanita Gorroño (Aztei, Muxika 1920 ing.-1989) Bizkaian, eta Juliana Esnaola (Elgoibar, 1892-1974) eta Primi Erostarbe (Oñate, 1904-1995) Gipuzkoan, bakar batzuk aipatzearren.

Landa eremuko *panderetereen* tradizioari lotutako herri erabilera horiek alde batera utzita, antzeko ezaugarriak zituen irudi bat osatzen joan zen, hiri eremuko ikuskizun berrien sorrerari esker. Berrasmatutako emakumezko ikono hark⁵, panderoa erabiltzeaz gainera, eta gizarte maila apalekoa izanik hura ere, bizkor-bizkor ihes egin nahi zion miseriarri. Kupletistak ziren, zeinak, beren erara, “Carmenen”⁶ eduki kontzeptualak luzatzen zituzten. Erromerietako beren izenkideekin konparatuz gero berealdiko balioa izan zuten, hainbat agertokitan eta antzerki lirikoaren eta bariatateen antzerki generoetan jendaurrean agertzen baitziren, nahiz eta haiek ere bazuten berea. Edonola ere, batzuek zein besteek moldatu egin behar zuten, genero estereotipoetara hain makurtua zegoen eta kosta ahala kosta horretan irauin nahi zuten gizarte patriarkalaren barruan.

1910. urteaz geroztik, ohikoa zen panderoaren balio sinboliko ugariko irudiak ikustea artista haien publizitate grafikoetan eta promoziozko posta txarteletan. Aurretik aipatutako margolan haietako mezuak ekartzen dituzte gogora. Hala ere, haien ikuspegia ez da hain mugatua, haien eduki metaforikoak hurbilagokoak dira, eta interaktibitatea eskatzen dute, izan ere, azken batean, inguruko hirietatik biran igarotzen zirenean beti egoten zen haiek ikusteko aukera.

Amaitzeko, gaur egungo euskal munduan, *panderetereak* osasuntsu daudela esan liteke; ukazina da hori. Gure herri eta hiri guztietan ikusten ditugu jotzen. Itxaropentsua izango litzateke, beren azken arbasoek errebindikaziorako gaitasun esparru txikitik abian jarriz zituzten trebetasun haiek zeinek bere erara berreskuratzeke aukera edukitzea.

Panderetereek iraganean erantsitako edukiak ikusgai jartzea eta haien balioa errebindikatzea da, azken batean, ekarpen honen ondorioa, patriarkatuaren sistema ideologiko aldakorra konpentsatzeko irrikaz. Sistema horrek, gaur egun guztiz indarrean dirauenak, emakumezkoen ikonosfera bere osagai estetiko utilitarista eta funtzional gaizto eta manikeoenetara murrizten du, baita musikaren eremuan ere.

5 Berrasmatua, “Tonadilleren” gaitasunak berreskuratzen dituen heinean. Ikusi SALAÛN, Serge: *El Cuplé* (1900-1936). Espasa Calpe, Madril, 1990.

6 Kontzeptualizazio horiei buruz dihardu FANJUL, Serafin: *Buscando a Carmen*. Siglo XXI, Madril, 2012. Gai gune bereko interpretazio bat, genero idazleen artean klasikoa, honakoa da: McCLARY, Susan: *Georges Bizet: Carmen*. Cambridge University Press, Cambridge, 1992.

La presión llegó a ser de tal calibre, que muchas pandereteras se recluyeron en los espacios domésticos lo que casi abocó a su desaparición. Esa es la razón de que el elenco de pandereteras de posguerra sea tan exiguo; no obstante, ofrece un panorama elocuente de lo que había sido la tradición de su oficio. Entre ellas, fueron exponentes brillantes Felisa Bermeosolo (Natxitu, 1899-1992), Maurizia Aldeiturriaga (Egia, Zeberio, 1904-1988), Romualda Zuluaga (Galdakao, 1913 -1974) y Juanita Gorroño (Aztei, Muxika 1920 ca.-1989) de Bizkaia, o Juliana Esnaola (Elgoibar, 1892-1974) y Primi Erostarbe (Oñate, 1904-1995) en Gipuzkoa, por citar algunas.

Al margen de estos usos populares ligados a la tradición de la panderetera de rango rural, fue desarrollándose una figura con características compartidas gracias a la génesis de nuevos espectáculos eminentemente urbanos. Este icono femenino reinventado⁵, además de usar la pandereta asiduamente y provenir del mismo origen social humilde, pretendía escapar de la miseria vertiginosamente. Se trata de las cupletistas que, a su manera, estiraban los contenidos conceptuales de la “Carmen”⁶. Su valor de exposición frente al público en los diferentes escenarios y géneros del teatro lírico y variedades era extremo si se las compara con el de sus homónimas de las romerías, que también llevaban lo suyo. Ambos grupos tenían que manejarse dentro de la sociedad patriarcal tan decantada hacia los estereotipos de género y su mantenimiento a toda costa.

Desde 1910, es muy frecuente encontrar en las publicidades gráficas y en las tarjetas postales promocionales de tales artistas, imágenes en las que la pandereta adquiere un cúmulo de valores simbólicos. Recuerdan mensajes de aquellas pinturas a las que antes se hacía mención. Sin embargo, su punto de vista es bastante menos encorsetado, sus contenidos metafóricos próximos, y demandan interactividad ya que, al fin y al cabo, siempre era posible verlas actuar cuando pasaban de gira por las ciudades próximas.

Para finalizar, se dirá que en el mundo vasco de hoy, las pandereteras gozan de buena salud; esto es innegable. Se las ve tocar por todos nuestros pueblos y ciudades. Sería muy halagüeño que, cada una a su manera, recuperara aquellas habilidades que sus antepasadas recientes pusieron en funcionamiento desde el pequeño marco de su capacidad reivindicativa.

La conclusión de esta aportación es hacer visible y reivindicar la validez de los contenidos incorporados por las pandereteras en los tiempos pasados, con un afán de compensar el camaleónico sistema ideológico del patriarcado. Este, completamente vigente, restringe la iconosfera femenina a sus elementos estéticos, utilitaristas y funcionales más perversos y maniqueos incluso dentro del mismo campo de la música.

5 Reinventado en cuanto que rescata competencias de las “Tonadilleras”. Véase SALAÛN, Serge: *El Cuplé (1900-1936)*. Espasa Calpe, Madrid, 1990.

6 Sobre estas conceptualizaciones se extiende FANJUL, Serafin: *Buscando a Carmen*. Siglo XXI, Madrid, 2012. Una interpretación del mismo núcleo temático ya clásica entre las escritoras de género es la de McCLARY, Susan: *Georges Bizet: Carmen*. Cambridge University Press, Cambridge, 1992.

Sopuertako emakumeak.

Mujeres de Sopena.

62



Alejandra Martínez
Ceballos



Charo González Aldana




Conchi Ulloa Diéguez



Mª Elena Orrantía González



Mª Rosa Aranceta Zuloeta



Mª Teresa García
Charramendieta

Mariefi Pérez Elexpe



Francisca Castaños Ortiz



Isabelita Alvarez Ortiz



Mª Carmen Garai Escuin



Marta Ruano Terraza



Milagros Martínez Correa



Pilar Diéguez Ortiz



Rosi Camino Urrutia



Visitación Diéguez Ortiz

Gaurko Emakumeak emakume elkarteak **“Sopuertako emakumeak, haien esperientziari begira”** proiektua antolatu zuen, 2016an, Sopuertako bizitzaren berri emateko xedez, emakumeen begietatik, bizipenetatik eta kontakizunetatik abiatuta; eta, hain zuzen ere, proiektu hartan parte hartu zuten 14 emakumeen historiaren parte txiki bat biltzen du lan honek. Bizi izan duten historiarena, zeinetan izan baitira garrantzi handiko eragileak, familia eta gizarte garapenari emandako bultzadagatik, orain artean ikusgarritasunik eman ez zaion arren haien eginkizun baliagarriari.

Beste toki batzuetan bezala, emakumeak gutxietsita egon dira, ez du behar zuen neurriko aitortzarik jaso haien lanaren balioak, eta, are gehiago, ez da lan modura hartu ere, batzuetan. Ez zaie ezagutu historia eraikian agertzeko adinako merezimendurik, eta, hala, sistema politiko, ekonomiko eta erlijiosoetan baztertuta eta parte hartu ezinik egon dira.

Egoera horretan pentsatzean, galdera hauxe datorkigu gogora: zer egiten zuten emakumeek, Sopuertako historia taxutzen ari zen bitartean? Nola bizi ziren? Zertan ematen zuten eguna?

Proiektua gauzatzeko, 30 orduetik gorako grabazio bat osatu zen, 68 eta 96 urte bitarteko emakumeen elkarrizketekin; elkarrizketetan, haurtzaroan, nerabezeroan, gaztetan eta heldutasunean izan dituzten egitekoak, desirak, proiektuak, igurikapenak, une alaiak eta tristeak eta bizi ikaskuntzen berri ematen dute emakume horiek, beren bizitzako garai guztiak kontuan hartuta.

Denak joan ziren eskolara, baina eskolatze urteen kopurua ez zen berdina izan kasu guztietan; izan ere, hamalau urte bete aurretik lanera joan behar izanaren edo etxeko eta baserriko lanetan laguntzera behartuta egon izanaren ondorioz eskolatuta urte gutxiagoz egon ziren hainbat emakume:

“Zazpi urterekin hasi nintzen eskolan, eta bederatzi urte edo betetzerako, joateari utzi nion. Hamar urterekin, arropa garbitu eta guzti egiten nuen”. “Aitari lagundu behar izaten nion so-roan, baserriko lanetan, premia zegoelako eta hori, obligatzen ez bazaitu ere, egin beharreko zerbait delako”.

“Gure ama 1907an jaiotzen zen, eta bizitza latz askoa izan du. Zazpi urte zituela ateratzen zuten etxetik. Azienda zuen jaun baten ahuntzak zaintzera bidali zuten gurasoek, aitona-amonek etxean mantendu ezin zutelako. Halaxe bidali zuten, zazpi urtetxorekin eta anai batekin, janaren eta arropen truke lanera”.

“Ni gutxi ibili nintzen eskola, lan handia zegoelako han, herrian; abere asko zegoen, eta ikaragarritzko lana genuen, ezin handik mugitu. Txiki-txikia izanda ere!”

Neska gehienek etxean ere lagundu behar izaten zuten, eskolara joan arren:

“Hemen behean, esnetegi bat geneukan. Gurasoek jezten zuten esnea. Nik ere bai. Eta eskolara joan aurretik, prestatzen zidaten asto bat, bi esne marmita handirekin, eta halaxe jaisten nintzen astoarekin esnea eramatera”.

“Hamalau urtera arte ibili nintzen eskolan... aldi berean, amari laguntzen nion, zazpi senide ginelako, eta baita aitari baratzean ere: oso gustukoa nuen piperrak, tipulak eta abar biltzea, baita igitaiarekin garia eta segarekin belarra moztea ere, dena eskuz, ez zegoen makinarik eta”.

Emakume haietako askok gogoz kontra utzi behar izan zuten eskola. Ikasten jarraitu nahi zuten, artea, medikuntza, puerikultura, pelukeria, antzerkia, irakaskuntza, matematika...

Esta es una pequeña parte de la historia de las 14 mujeres que participaron en el año 2016 en el proyecto de la Asociación de Mujeres Gaurko Emakumeak, “Mujeres de Sopuerta, una mirada a la experiencia”, que tenía como objetivo contar el discurrir de la vida en Sopuerta a través de sus ojos, de sus vivencias y de sus narraciones. Una historia de la que han formado parte y en la que han sido importantes actrices con su contribución al desarrollo familiar y social, a pesar de que su inapreciable papel no se haya visibilizado.

Al igual que en otros sitios, la mujer no ha sido tenida en cuenta, su trabajo no ha sido valorado e incluso no ha sido considerado como tal. Es como si no hubiera hecho méritos para ser incluida en la historia que ha sido construida, dejándola al margen y sin participación en los sistemas políticos, económicos y religiosos.

La pregunta, por tanto, es: ¿qué hacían las mujeres mientras se modelaba la historia de Sopuerta?, ¿cómo vivían?, ¿en qué tareas ocupaban sus días?

En las más de 30 horas de grabación, las mujeres entrevistadas, con edades comprendidas entre los 68 y 96 años, que han sido niñas, adolescentes, mujeres jóvenes y adultas, nos cuentan, de acuerdo a sus diferentes épocas de vida, sus ocupaciones, deseos, proyectos, expectativas, momentos alegres y tristes y aprendizajes vitales.

Si bien todas ellas fueron a la escuela, los años de escolarización dependían de la necesidad de que las niñas tuvieran que ir a trabajar antes de los catorce años, o de que se vieran obligadas a colaborar en el cuidado de los trabajos de la casa y el campo:

“Fui a los siete años a la escuela y para los nueve o así dejé de ir. Para los diez lavaba la ropa y todo”. “Tuve que ayudar a mi padre en el campo, en las cosas del caserío, porque estaba necesitado de ayuda y eso es algo que no te obliga, pero que lo tienes que hacer”.

“La vida de mi madre, nacida en 1907, ha sido muy dura. Con siete años se marchó de casa. Los padres le mandaron a cuidar las cabras de un señor que tenía rebaños porque mis abuelos no la podían mantener en casa. Con siete añitos les mandaron a ella y a un hermano, nada más por la comida y vestidos”.

“Yo muy poco fui a la escuela, porque allí en el pueblo tenía que trabajar mucho, había mucho ganado y tenías que trabajar una barbaridad, no podías moverte. ¡Tan chiquitina!

La mayor parte de las niñas compartía la asistencia a la escuela con la ayuda en la casa:

“Teníamos aquí abajo una lechería. Mis padres sacaban la leche. Eso también lo hacía yo. Antes de ir a la escuela me preparaban un burro con dos cántaras grandes de leche y bajaba con el burro a llevar la leche”.

“Fui a la escuela hasta los catorce años.... al mismo tiempo ayudaba a mi madre, porque éramos siete hermanos, y también a mi padre en la huerta, me gustaba mucho coger los pimientos, las cebollas... y también segar el trigo con la hoz y la hierba con el dallo, todo a mano, porque no había máquinas”.

A muchas de ellas les costó dejar la escuela. Querían seguir estudiando arte, medicina, puericultura, peluquería, teatro, magisterio, matemáticas... pero al tratarse de una población eminentemente rural y tradicional y con economías precarias, la mujer se vio recluida al aprendizaje de las labores de mantenimiento del hogar y al matrimonio.

“Mis abuelos tenían cinco hijos, y quisieron que mi madre fuera para casa. Y a mí me pasó lo mismo... Estuve un año en Sestao en una academia aprendiendo a coser y a bordar, me compraron una máquina de coser, y mi madre me enseñó a cocinar... Ya tenía la carrera terminada”.

baina, ekonomia prekarioko landako herri eta herri tradizional batekoak izanik, etxeko mantentze lanak egiten ikastera eta ezkontza bizitzara mugatzen zen emakumeen jarduna.

“Aitona-amonek bost seme-alaba zituzten, eta etxerako nahi zuten ama. Eta berdin gertatu zitzaidan niri. Urtebete egin nuen Sestaon, akademia batean josten eta brodatzen ikasten; josteko makina bat erosi zidaten, eta amak sukaldean erakutsi zidan... Kito, horrekin egina zenuen karrera”.

“Urte eta erdi igaro nuen Mercadilloko ile apaindegi batean buruak garbitzen, baina gehiago irabazi nahi nuen, otordua besterik ez baitzidaten ematen han; eta, halaxe joan nintzen Bilbora. Lau urtez egon nintzen ile apaindegi batean, kobratuz, baina asegururik gabe. 24 urterekin ezkondu, eta lana utzi nuen”.

“Ama, Hermenegilda Ortiz, 1888an jaio zen; meatzari baten alarguna zen, eta niri josten irakasteko 8 pezeta ordaintzen zituen, galanki kostata ordaindu ere. 38 urte egin nituen amarekin josten, biak bakarrik, harik eta ezkondu nintzen arte”.

Beste batzuek, gutxiengoak, aukera izan zuten ikasten jarraitu edo ez erabakitzeko:

“Oinarrizko batxilergoa amaitu nuenean, amari esan nion andereñoa izan nahi nuela, eta ‘bai, zera!’ erantzun zidan; ez zidan utzi, gaizki ikusita zegoen. 20 urterekin, Irlandara joan nintzen ingelesa ikastera, eta urtebete igaro nuen ikastegi batean, barnetegian. Itzuli nintzenean, merkataritzako peritu ikasketak egin nituen, baina ez nuen gustukoa, eta, azkenik, nahi nuena egin ahal izan nuen: irakatsi. Une hartan ireki zen hemen nesken ikastegia, eta apaizak, don Jesusek, ingeleseko eskolak ematea eskaini zidan; zeruko atepak ireki zizkidan”.

“Aitak farmazia ikastea nahi zuen, eta nik ezetz. Sukaldaritza, joskintza eta gizonezkoen alkandorak egiten ikasi nuen. Banekien zaldi gainean ibiltzen, aitak erakutsita; erabakimen handiko neska nintzen, eta, esne marmitak zaldi gainean zamatuta, eta Las Muñecasera ino etortzen nintzen gauzez, eta La Carranzanak jasotzen zuen han esnea. Askok esaten zioten aitari: ‘Alaba eskolan ibili, eta, orain, zer eta...’ ‘Eta zer zerikusi du horrek? Ikas dezala eta egin dezala denetik’. Eta horixe egin dut”.

Haurtzaroan nahiz nerabezarotan, izan zuten olgetarako eta jolaserako astia, eta emakume askorentzat garai pozgarriak izan ziren; oraingo baino haurtzaro “xaloagoa” eta betegarriagoa izan zutela diote, kaleko bizitzari lotuagoa.

“Bostetarako eskolatik irten, eta lagunekin jolaserara. Hori bai, oroitzapen zoragarriak ditut ama sukaldean gurekin tortoloxetan aritzen zenekoak”.

“Oso gustukoa nuen Sopuertako askatasuna; asko atsegin nuen hemen egotea, kalean ematen genuelako eguna osoa, libre. Eskola ez zitzaidan gustatzen”.

“Hamahiru urterekin hasi nintzen irteten, jaietara, zinemara, dantzara... bederatzietan etxean egon beharra neukan. Beloa eta lurrerainoko gona jantzita ibiltzen ginen. Mutilek ez ziguten ezertxo ere ikusi behar; senargaiarekin paseora ateratzen ginenean, lagunekin ibiltzen ginen, ez bakarrik, eta etxeko atean hitz egiten genuen, amona tartean zela, kakorraz lanean”.

Arlo politiko, sozial eta erlijiosoan mendekotasun handia zutela gogoan dute, nahiz eta ez zuten denek modu traumatikoa bizi izan. Askorentzat, Elizara hurbiltzeko eta Ekintza Katolikoko edo JOCeko kide gisa gizarte konpromiso sendoa hartzeko bidea eman zieten gertaera haiek, erlijioari lotuak askotan:

“Estuve año y medio lavando cabezas en una peluquería de Mercadillo, pero quería ganar más, porque allí me daban solo la comida y me fui a Bilbao. Estuve cuatro años en una peluquería, cobrando y sin asegurar. A los 24 años me casé y dejé de trabajar”.

“Mi madre, Hermenegilda Ortiz que nació en 1888 y era viuda de minero, pagaba, con muchísimo esfuerzo, 8 pesetas para que me enseñaran a coser. Estuve 38 años cosiendo con mi madre, solas las dos, hasta casarme”.

Otras, las menos, pudieron optar por seguir, o no, estudiando:

“Cuando terminé el bachiller elemental le dije a mi madre que quería ser maestra y me dijo que ¡nanay de la china!, no me dejó, no estaba bien visto. A los 20 años fui a Irlanda a estudiar inglés y estuve un año interna en un colegio. Cuando volví hice perito mercantil pero no me gustaba, y al final hice lo que me gustaba, enseñar. En aquel momento se abrió aquí el colegio de chicas y el cura, Don Jesús, me ofreció dar clases de inglés, y me abrió las puertas del cielo”

“Mi padre quería que estudiara farmacia y yo no. Aprendí cocina, costura y a hacer camisas de caballero. Sabía montar a caballo, me enseñó mi padre; era muy decidida, ponía las cacharras de la leche en el caballo y por la noche venía hasta Las Muñecas, donde la recogía La Carranzana. Muchos solían decir a mi padre “has tenido a la hija en el colegio y resulta que ahora...” “¿Y eso qué tiene que ver? Que aprenda y que haga de todo”. Y eso he hecho”

Tanto en la niñez como en la adolescencia había tiempo para el juego y la diversión, y un gran número de mujeres lo recuerda como un tiempo de alegría, considerando que fue una infancia más “inocente” y más plena que la que ahora se vive, más cercana a la claridad de las calles.

“A las cinco ya era salir de la escuela y jugar con las amigas. Eso sí, tengo unos recuerdos muy bonitos de cuando mi madre se ponía a jugar a las tabas con nosotras en la cocina”.

“Me gustaba la libertad de Sopuerta, me encantaba estar aquí porque era todo el día en la calle, libre, y el colegio no me gustaba”

“Empecé a salir con trece o catorce años, a fiestas, al cine, al baile... a las nueve tenía que estar en casa. Íbamos vestidas con velo y faldas hasta el suelo. Los chicos no podían vernos nada, y de novios salíamos de paseo con las amigas y hablábamos en la puerta de casa, con la abuela en medio haciendo ganchillo”

En el plano político, social y religioso recuerdan la sujeción a la que estaban sometidas, aunque no todas lo vivieron de manera traumática. Para muchas, estos sucesos, ligados en muchas ocasiones a la religión, supusieron un acercamiento a la Iglesia y un serio compromiso social, como miembros de Acción Católica y de las JOC:

“Colaborábamos mucho en la iglesia, limpiando, adornando, en grupos de mujeres, vivíamos alrededor de ella. Íbamos al cine y a las películas les metían unos cortes que para qué, no sabíamos de qué iba, y en el palco, detrás nuestro, estaba D. Francisco, el cura, y cuando mirabas para atrás veías sus gafas ahí, que relucían...”

“En la escuela teníamos unas señoritas de las JONS, de las de José Antonio Primo de Rivera... venían a ver la limpieza nuestra y de las clases. Teníamos que estudiar un librito sobre Primo de Rivera como si fuera un catecismo. De vez en cuando nos bajaban a la

“Asko laguntzen genuen elizan, apaingarriak jartzen, emakume taldeetan, elizaren inguruan egiten genuen bizitza. Zinemara joaten ginen, eta izugarrizko etenak izaten zituzten filmek, zertaz ari ziren ere ez jakiterainokoak, eta palkoan, gure atzean, D. Frantzisko, apaiza, eta atzera begiratu orduko ikusten zenituen haren betaurrekoak, hortxe, distiratsu...”.

“Eskolan, JONSeko andereño batzuk genituen, José Antonio Primo de Riveraren jarraitzaileak... gure eta ikasgelen garbitasuna begiratzera etortzen ziren. Primo de Riverari buruzko liburuxka bat ikasi behar genuen, kristau ikasbidea balitz bezala. Tarteka, Mercadilloko erorien gurutzera jaisten gintuzten, eta “Cara al sol” kantatzen genuen, parrandara bagindoaz bezala. Zer zen arrastorik ere ez geneukan”.

“JOCen (Juventud Obrera Católica) sartu ginen; 1965etik aurrera, HOAC, Hermandades Obreras de Acción Católica... Oso interesgarria zen, lagun hurkoaren alde lan egiten zuen jendeak... Ekintza Katolikoan hasi ginen, eta JOCen amaitu, Ekintzarako Formazioan, hau da, lana eta lana. Ez zegoen ezer egin gabe egoterik, beti izan behar zenuen jomugaren bat. Ideia kristauei jarraituz, besteen alde lan eginez”.

Ezkondutakoan, emaztearen eta amaren eginkizuna betetzen zuen emakumeak etxean, testuinguru pribatuan, etxeko, baserriko eta familiako lanak eginez osatutako familia berriaren zerbitzura: baratza,azienda, inguruko azoketan produktuak salerostea, etxea urez eta egurrez hornitzea, garbitokian edo ibaian arropa garbitzea, etxerako nahiz kanporako arropa josi eta konpontzea, etxearen eta familiako kide guztien zaintza, haur, adineko eta gaixo eta apopiloena, elikadura eta osasun arreta.

Era berean, iraunkorki ez bazen ere, mendian lan egiten zuten, eukaliptoak eta pinuak landatzen; baita meategietan ere, zamari gisa, mea sailkatzen, txirta txikitzen eta garbitzen mea garbitegietan. Familiaren egoeraren eta beharraren arabera aldatzen ziren lan haiek, adibidez, senarrak gaixotasunen bat edo istripua izanez gero soldata irabazteari uzten bazion, edo alargun geldituz gero, edo seme-alaba asko izanik beharra handia izanez gero. Etxeko lanekin bateratu behar izaten zituzten eginkizun haiek, eta, oro har, senarraren soldata osatzeko izaten zen emakumeek ateratzen zutena. Lan “ez ofiziala” zen, eta gizonek baino soldata txikiagoa izaten zuten. Gehiago irabazten zen neskek, baina horretarako eguneko 24ak eman behar zituzten etxetik kanpo, eta, ezkondata egonik, ezinezkoa zen hori.

“Bi urte eta zazpi hilabete egin nituen meategian lanean, platertxoan. Iristen zen hondakin handiena aukeratu behar nuen, danborrak garbitzen zuen, baina nik, hartu, garbitu, eta saskira”.

“Gogoan dut Pepa izeneko andre bat, ez zitzaion behatzik gelditzen ia; higaduragatik murriztu egiten zitzaizkion, janda zituen, neguko hotzarekin garbiketean jardun behar izanaren ondorioz. Pena izugarria”.

“Eukaliptoak landatzera mendira joan nintzen, beste emakume batzuekin, hiru hilabetez; Santa Ana egunez estreinatzeko soineko berriak egin nahi nizkien alabei”.

“Arduradunak behin batean esan zidan: ‘Hara gora igo behar duzu gizonekin, pinudira’. Eta nik erantzun: ‘Ez, ez, ez, ez bidali ni hara’. Gonarekin ibiltzen nintzen ni eta. Hala, auzoko gizon batek uzten zidan bonbatxoa jantzi, eta horrelaxe igotzen nintzen, gizonak ibiltzen baitziren behean, eta ni goian, begira zer atarramentu... nirea zena niretzat zen, ez beste inork ikusteko”.

cruz de los caídos de Mercadillo, cantábamos el “Cara al sol” y nos parecía que íbamos a una jota. No teníamos ni idea de lo que era”.

“Nos metimos en la JOC (Juventud Obrera Católica), desde 1965 HOAC, Hermandades Obreras de Acción Católica...era muy interesante, la gente siempre trabajaba para el prójimo...Empezamos en Acción Católica, en la iglesia y terminamos en las JOC, la Formación por la Acción, o sea, trabajar y trabajar. No se podía no hacer nada, siempre había que tener una meta. Era bajo un ideario cristiano, trabajar por los demás”.

Una vez casada, la mujer pasaba a desempeñar el papel de esposa y madre en casa, en el contexto privado, haciendo todos los trabajos domésticos, agrícolas y familiares destinados al servicio de la nueva familia que se forma: la huerta, los animales, compra-venta de productos en los mercados próximos, abastecimiento de agua y leña al hogar, lavar la ropa en lavaderos o en el río, confeccionar y arreglar prendas, tanto para casa como para fuera del hogar, cuidado de la casa y de todos sus miembros, niños, ancianos y enfermos y huéspedes, la alimentación y el cuidado de la salud.

Al mismo tiempo, de manera no permanente, realizaban trabajos en el monte, plantando eucaliptos y pinos; así como en las minas, en labores de carga, clasificación del mineral, picado y lavado de la chirla en los lavaderos de mineral. Respondía a condiciones y necesidades familiares cambiantes, bien por enfermedad o accidente del marido que dejaba de cobrar su salario, bien por viudedad, o por un elevado número de hijos. Se compaginaba con el trabajo de casa y, en general, el salario servía para complementar el del marido. Era un trabajo “no oficial” y sus salarios eran inferiores a los de los hombres. Se ganaba más como sirvientas, pero ello implicaba la estancia de las 24 horas del día fuera de casa y estando casada no era posible.

“Estuve dos años y siete meses trabajando en la mina, en el platillo. Tenía que escoger todo el escombros mayor que venía, lo lavaba el tambor, pero yo lo cogía, lo limpiaba y al cesto”.

“Me acuerdo de una señora que se llamaba Pepa que casi no tenía dedos; se le reducían por el desgaste, los tenía comidos de estar lavando con el frío en invierno. Una pena”.

“Fui a plantar eucaliptos al monte junto con otras mujeres durante tres meses, quería hacer unos vestidos nuevos a mis hijas para estrenar en Santa Ana”.

“El encargado me dice un día: “Tienes que subir con los hombres allí arriba, a los pinos” Y le dije: “no, no, no, a mí no me mandes”. Porque yo iba con faldas. Me ponía un bombacho que me dejaba un vecino y así sí subía, porque los hombres abajo y yo arriba, fíjate tú... lo mío era mío, no era para que lo viera nadie”

El hospedaje era otro de los trabajos llevado a cabo por las mujeres que podía realizarse sin salir de casa. Acogían principalmente a inmigrantes temporeros, en época de descanso de las tareas agrícolas, en general hombres solteros jóvenes, entre los 15 y los 30 años. No era muy costoso y a cambio los huéspedes tenían la ropa limpia y repasada, comida elaborada y caliente y la habitación limpia.

Labradoras, costureras, modistas, parteras, peluqueras, maestras, sanitarias y alimentación eran otros oficios realizados por mujeres, la mayoría de ellas sin asegurar y en ocasiones sin dar valor a su trabajo.

“Estuve tres meses interna en Polanco aprendiendo a poner inyecciones, quitar yesos, puericultura y hacía las prácticas en el dispensario de Torrelavega y en el hospital de

Apopilok hartzea zen emakumeek etxetik atera gabe egiteko moduko lanetako beste bat. Nagusiki etorkin sasoiariak hartzen zituzten etxeetan, nekazaritzako lanetan atsedena izaten zen garaian: gizon ezkongai gazteak, 15 eta 30 urte bitartekoak. Ez zitzaien garesti ateratzen, eta, ordainetan, arropa garbia eta pasaratua, etxeko janari beroa eta logela garbia zuten.

Nekazari, jostun, modista, emagin, ile apaintzaile, irakasle, osasun arloko langile eta sukaldari lanak egiten zituzten emakumeek, aseguruik gabe, gehienek, eta beren lanari baliorik batere aitortzen ez zitzaie, maiz.

“Hiru hilabetez egon nintzen Polancon barnetegian, injekzioak jartzen, igeltsuak kentzen eta puerikultura ikasten, eta Torrelavegako kontsultategian eta Santanderko Valdecilla erietxean egiten nituen praktikak. Sopuertara itzuli nintzenean, 1957an, injekzio pila jarri behar izaten ziren, eta, tarteka, lan handia zutenean, medikuak eta praktikanteak niri esaten zidaten jartzeko”.

“Ez dut egin baliozko ezer, meritua duen ezer; etorri zaidan bezalaxe bizi izan dut bizitza, beharrak bultzatuta norberak egindakoa ez da beste munduko ezer”.

“Nik hortxe jarraitu nuen lanean, familiaren jostundegian. Ez nuen izan erretirorik, obraka lan egiten bainuen. Hilean hainbateko bat jasotzen genuen, eta kito: ez geneukan ez aseguru-rik ez ezer. Nire senarrak eta gizonek bai, baina, familiako emakumeek, bakar batek ere ez”.

Pixkanaka, ordura arte eskusiboki gizonek betetako espazioetan sartzen hasi ziren emakumeak, eta, seme-alabak hazi ahala, independentzia eskuratzen eta etxeko mugetatik kanpoko bizimoduari heltzen hasi ziren. 1970eko hamarraldiaren erdialdera, herriko bizitzan modu aktiboan parte hartzen hasi eta parroketako batzarretan sartu ziren; politikan esku hartzen, ikasketak osatzen, margotzen, kantatzen, bidaiatzen, antzerkia egiten, elkartzeko modu berriak asmatzen eta elkarteetan antolatzen hasi ziren.

“Gu izan ginen tabernetan sartu ziren lehen emakumeetakoak; lehen ez ziren sartzen, gizonak sartu, eta zu kanpoan. Eta Colisan, Mercadillon, ataritik bezala sartzen hasi ginen, gune erreserbatu batera. Gero, berriz, handik tabernara”.

“Pinturak asko lagundu zidan erlaxatzen, asko eman zidan. Pentsarazi zidan: ‘Ni ere banaiz, ba, gauzak egiteko gai’. Gauzak sortzen nituen. Nire aukerez ohartzea eta beste gaitasun batzuk ikastea garrantzi handikoa izan da nire bizitzan”.

“Pinturako taldearekin herrialde askotara bidaiatu naiz: Errusia, Norvegia, Alemania, Libano, Kuba, Polonia, Jugoslavia..., eta hor jarraitzen dute oraindik”.

“Antzerki taldeko kidea izan nintzen, nire buruaz barre egiten eta lotsa gainditzeko ikasi nuen. Jendearen barreek eta txaloeak, besterik ez bada ere, izugarri ematen dizute”.

Gaurko Emakumeak elkarte 2006ko abenduan sortu zen, eta puntua eta joskintza lanak egitera asteazkenetan Batzokian elkartzen ziren hiru emakume izan ziren eragileak. Pixkanaka, handituz joan zen taldea, eta horrela hasi ziren bestelako jarduerak antolatzen eta haiek aurrera eramateko diru laguntzak eskatzen. Emakumei bilera batean parte hartzeko deia egin zitzaion, interes handiz hartu zuten deialdia, eta emakume asko elkar-tu ziren, eta horrelaxe jarri zuten proiektua martxan. Gaur egun, hirurehunetik gora gara.

Valdecilla de Santander. Ya en Sopuerta, en 1957 se ponían muchísimas inyecciones y, tanto el médico como el practicante, me pedían que las pusiera yo cuando había mucho trabajo, en momentos puntuales”.

“No he hecho nada de valor, nada que tenga mérito, he vivido la vida según me ha venido, lo que una persona ha hecho por necesidad no es una cosa de otro mundo”

“Yo seguí trabajando ahí, en la sastrería familiar. No tuve jubilación porque trabajaba a obra hecha. Nos pagaban al mes y ya estaba, no estábamos aseguradas ni nada. Mi marido y los hombres sí, pero las mujeres de la familia no, ninguna”

Poco a poco las mujeres van ocupando espacios que han sido exclusivos de los hombres, y, cuando los hijos crecen, comienzan a independizarse y a plantearse la vida fuera de los límites domésticos. A mediados de 1970 algunas de ellas pasan a ser parte activa de la vida del pueblo y se introducen en las juntas parroquiales, participan en política, amplían los estudios, pintan, cantan, viajan, hacen teatro, buscan formas de reunirse y se organizan en asociaciones.

“Nosotras fuimos de las primeras mujeres que entramos en los bares, porque no se entraba, entraban los hombres y tú fuera. Y en el Colisa, en Mercadillo, empezamos a entrar como si fuera por el portal, a un reservado. Después al bar”.

“La pintura me relajó mucho, me dio mucho. Me hizo pensar: “Yo también puedo hacer cosas”. Era crear algo. Ver mis posibilidades y descubrir otras capacidades ha sido muy importante en mi vida”.

“Con el grupo de pintura he recorrido muchos países: Rusia, Noruega, Alemania, Líbano, Cuba, Polonia, Yugoslavia... y el grupo sigue”.


“Formé parte del grupo de teatro, aprendiendo a reírme de mí misma y a quitar la vergüenza. Nada más con lo que se ríe la gente y con los aplausos, eso ya te aporta un montón”

La Asociación Gaurko Emakumeak se funda en diciembre de 2006 y fue impulsada por tres mujeres que se reunían para hacer punto y labores los miércoles en el Batzoki. Poco a poco fueron incrementando el grupo, planteándose ampliar las actividades y solicitar subvenciones para llevarlas a cabo. Se convocó a las mujeres a una reunión, hubo gran interés y mucha asistencia y el proyecto se hizo realidad. Hasta hoy, que somos más de trescientas.

**Sorginen azken
hegaldiaren
itzalera.**

**Emakume,
elizgizon eta
legoen istorioak
“Durangoko
lurretan”.**

Sorginen azken
hegaldiaren
itzalera. Historias
de mujeres,
clérigos y legos
en las “Tierras de
Durango”.



73



“Si las brujas existieran la ley debería reclutarlas para el Rey en vez de perseguirlas”.

Alonso de Salazar y Frías

1617. urtean, Durangoko Merinaldeko fidelek (alkateek), Gerediagako Batzarretan bil-duta, sorginen kontrako neurriak hartzea erabaki zuten, haiek eragindako kalteei buruz eztabaidatu ostean. Ondoren datorren kontakizunak, une historiko hartan gertatutakoa jaso eta azkenengo “sorginak” Astolako kartzelatik askatu izana ospatzen du.

Sorginkeriaren gorengo maila

1605ean Tristan de Urtubiak, Urtubiako jaunak, eta Donibane Lohizuneko agintariek merkataritza arloko gatazka handia izan zuten, herri hartako portuaren eta zubi baten erabilera zela eta. 1605eko urte horretan, Donibane Lohizuneko kontzejua Urtubia klaneko hamabi kide inguru atxilotu zituen, sorgin izatea leporatuz, baina, zergatia, aipatu den bezala, beste bat zen. Batzorde bat Bordeleko Legebiltzarrerara joan eta akusatuetako batzuk libre geratu ziren, fidantzapean, baina beste batzuk, berriz, Bordeleko presondegian atxilotu zituzten. Urtubiatarrek, mendeku gisa, euren kontra hitz egin zuten lekukoak jipoiu zituzten. 1607ko San Joan Egunean, Urtubia klaneko zenbait kidek, aurpegiak estalita, Donibane Lohizunen sartu eta hainbat herritar zauritu zituzten. Hurrengo egunean, Urtubiatarren aldekoak eta Donibane Lohizuneko agintarien jarraitzaileak gudu zabalean borrokatu ziren. Gatazkak aurrera jarraitu zuen, eta Tristan de Urtubia, Urtubiako jauna, izan zen 1609an Enrike IV.a erregearen aurrean, haren erresuman zeuden euskal lurretan sorginkeria arazoa zegoela adierazi zuena.

Frantziako Enrike IV.a eta Nafarroako III.a, Joana Albretekoa Nafarroako erreginaren semea, 1572tik zen errege. Errege katolikoek kontrako gerraren ondoren, erresuma Seigarren Merinaldeko edo Baxenafarroako lurretara mugatuta geratu zen. 1589an, gerra eta gatazka ugariren ondoren, Nafarroako bere erresumaren esku utzi zituen Frantziako Erresumako lurak. Protestante erlijioz, bere ama Joana erregina bezala, hori egiteko katoliko bilakatuzen, “Parisek ondo merezi du meza bat” esaldi ezaguna esanez. Enrike IV.a Tristan de Urtubiaren beldur zen. Azken hori Berakoa zen jatorriz, eta Bidasoaren beste aldean ere bazituen lurak. Frantziako erregearen beldurra, Tristan Espainiako Felipe III.a erregearen alde agertzea zen, Nafarroako Erresumatik bizirik zirauenari, Baxenafarroari, buruz hark zituen errebindikazioetan. Hori dela eta, Espagnet errege kontseilaria eta Pierre de Lancre Bordeleko Legebiltzarreko kontseilaria bidaltzea erabaki zuen, erabateko agintaritzarekin, salaketak ikertzeraz.

Lancre ez zen garai hartako gizarteko bigarren mailako edozein. 1553an jaio zen Bordelen, jatorriz Baxenafarroakoa zen familia batean. Jesuitekin ikasi zuen eta 1576an zuzenbidean doktore egin zen. Ikasketa horiek, Torinon eta Bohemian egindako zuzenbide eta teologia ikasketekin osatu zituen. 1582an Bordeleko Legebiltzarreko kontseilari izendatu zuten.

“Si las brujas existieran la ley debería reclutarlas para el Rey en vez de perseguirlas”.


Alonso de Salazar y Frías

En el año 1617 los fieles (alcaldes) de la Merindad de Durango reunidos en las Juntas de Gerediaga decidieron tomar medidas contra las brujas, tras discutir sobre los daños que éstas habían originado. El siguiente relato recoge lo acaecido en aquel momento histórico y conmemora la puesta en libertad de las últimas “brujas” de la cárcel de Astola.

El cénit de la brujería

En 1605 Tristán de Urtubia, señor de Urtubia, y las autoridades de San Juan de Luz mantenían un fuerte conflicto comercial en torno al uso del puerto y un puente de dicha localidad. En este año de 1605, el concejo de San Juan de Luz detuvo a una docena de miembros del clan de los Urtubia a los que acusaba de brujería, aunque en el fondo, tal y como se ha señalado, el problema era otro. Personada una comisión del Parlamento de Burdeos, liberó a algunos de los acusados bajo fianza y a otros los encerró en la prisión de Burdeos. Los Urtubia, en venganza, apalearon a los que habían testificado contra ellos. El día de San Juan de 1607 miembros del clan de los Urtubia, embozados, irrumpieron en San Juan de Luz hiriendo a varios vecinos. Al día siguiente se enfrentaron en batalla campal los vinculados a los Urtubia y los acólitos de las autoridades de San Juan de Luz. El conflicto continuó y fue Tristán de Urtubia el que acusó en 1609, frente al rey Enrique IV, que la brujería era un problema en las tierras vascas de su reino. Enrique IV de Francia y III de Navarra, hijo de la reina navarra Juana de Albert, era rey desde 1572. Un reino que, tras la guerra contra los Reyes Católicos, había quedado reducido a las tierras de la sexta Merindad o Baja Navarra. En 1589, tras guerras y conflictos, Enrique agregó a su reinado de Navarra las tierras del Reino de Francia. Protestante de religión, como su madre la Reina Juana, abrazó para ello el catolicismo haciendo muy conocida la frase “Paris bien merece una misa”. Enrique IV temía a Tristán de Urtubia, que originario de Bera de Bidasoa, poseía también tierras al otro lado del Bidasoa. El temor del rey francés era que Tristán apoyara a Felipe III, rey de España, en sus reivindicaciones sobre lo que perduraba del Reino de Navarra, Baja Navarra, y por ello acordó mandar al consejero real Espaignet y al consejero del Parlamento de Burdeos Pierre de Lancre, con plenos poderes, a investigar las acusaciones. Lancre no era ningún actor secundario en la sociedad de la época. Nacido en Burdeos en 1553, en el seno de una familia oriunda de la Baja Navarra, estudió con los jesuitas y se doctoró en Derecho en 1576, lo que complementó con estudios jurídicos y de teología en Turín y Bohemia. En 1582 fue nombrado Consejero del Parlamento de Burdeos.

Lancre, instalado en el castillo del señor de Senpere, continuó durante cuatro meses con sus pesquisas. Su carácter de fanático obtuso, que le hacía ver la presencia y labor del diablo en todos los lugares, ocasionó que numerosos habitantes acabasen con sus huesos en prisión. Dado que la población masculina se hallaba en las pesquerías de Terranova y Canadá, las presas eran mayoritariamente mujeres. Las investigaciones



Uribeko bikarioaren deialdiaren kopia. 1616.eko ekainaren 11a. Besteak beste sorginkeriaren errepresioaz mintzatuko dira.

Traslado de convocatoria del Vicario de Uribe. 11 de julio de 1616. Entre otras cosas, se trata la represión de la brujería.

Senpereko jaunaren jauregian bizi zen Lancrek lau hilabetez jarraitu zuen bere ikerketekin. Leku guztietan deabruaren presentzia eta lana ikustera zeraman fanatiko itxia zen, eta horrek presondegira eraman zituen inguruko biztanle asko. Gizonezkoak Ternuan eta Kanadan arrantzan ari zirenez, atxilotutako gehienak emakumeak izan ziren. Azken aldiari egindako ikerketek erakusten dutenez, Pierre Lancrek ehun pertsona inguru hil zituen, eta horiei, presondegian hildakoak gehitu behar zaizkie, bertan jasaten zituzten baldintza gogorren eta torturen ondorioz.

Marinelak itzultzean, euren senideak kartzelan edo prozesatuta, eta sarritan erailda, aurkitu zituzten, eta horrek tentsio handia eragin zuen. Tentsioa guztiz leheritu zen Donibane Lohizuneko Marie Bonneren kontrako epaia egin zenean. Baionako Echaz gortzaiak Lancre ordezkatzeara eskatu zion erregeari, eta Bordelera deitu zioten.

Haren ordezkariak beste epaile batzuk etorri eta presondegian oraindik bizirik zeudenak askatu zituzten. Gertakari horien ondorioz, biztanle askok muga gurutzatu eta Nafarroan hartu zuten babeslekua. Batzuk, Donejakuera erromesaldian edo beste leku batzuetara joateko aitzakiarekin, Gipuzkoan eta Bizkaian sartu ziren.

1608an, Lapurditik itzultitako Zugarramurdiko emakume batek, inguru haietako sorginen istorioak kontatu zituen, eta berak ere urtebete eta erdiz bilera haietan parte hartu zuela eta Maria de Juretegia, bertako herritarra, ere bertan ikusi zuela esan zuen. Mariak esandakoa ukatu zuen, baina salaketek eta handik gertu zeuden Lapurdiko, Baxenafarroako eta Zuberoako lurretan gertatzen ari ziren gertakariak, Gaztelako Erresumako Inkisizioaren esku-hartzea ekarri zuen gatazka eragin zuten. 1609an, hegaldietan, sortilegioetan eta deabruen-sorginen bestelako egitekoetan sinesteko joera handia zuen Juan del Valle Alvarado inkisidorea Zugarramurdira bidali zuten. Valle Alvaradok, bertatik gertu zegoen Urdaxeko abadeak eta inguruko beste apaiz batzuek esandakoa entzun ondoren, Zugarramurdiko eta inguruko herrietako hainbat biztanle galdekatu zituen, eta sorginak eskualde horretan lasai asko zebiltzala sinetsi zuen. Bere lanaren ondorioa, berrogeita hamahiru pertsona atxilotzea eta 1610eko azaroaren 7an, Logroñon, inkisizioaren egoitzan, epaitu izana izan zen. Epaia emateko orduan,

“Tambien deseo que a mi me abise de las bruxas que ay en esa bicaria y qen que lugares della y en quantos en casda uno y las que son asi presas y las que no lo son y a quantas criaturas an echo dano y si se procede contra ellas por el santo officyo de la ynquisicion o por la justicia seglar”

